Erref/Ref:	**2026/6794E**
Proz/Proc:	**Expedientes de oferta pública de empleo**
RECURSOS HUMANOS Y CONTRATACION	

IRAGARKIA/ANUNCIO

Leioako udaleko langileen plantillan hutsik dauden gizarte-zerbitzuetako hiru (3) teknikari plaza lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak. / Bases que han de regir la convocatoria para la provisión, mediante el sistema de concurso-oposición libre de tres (3) plazas de técnico/a de servicios sociales, vacantes en la plantilla de personal del ayuntamiento de leioa.

2026ko uztailaren 10ko 5125zk.ko Alkatetza Dekretuaren bidez, honako hau xedatu da:

Mediante Decreto de Alcaldía nº 5125 de fecha 10 de julio de 2026, se ha dispuesto:

LEHENENGOA: Gizarte Zerbitzuetako teknikari lanpostuen hornidura lehiaketa-oposizio askearen sistemaren bidez behin betiko betetzeko deialdia eta hura arautu behar duten oinarriak onartzea (dekretu honi erantsiak). Hauek dira oinarriak, indarrean dagoen lanpostu-zerrendaren arabera:

PRIMERO: Aprobar la convocatoria y las bases que han de regirla (anexas al presente Decreto), para la provisión definitiva, mediante el sistema de concurso-oposición libre, de la dotación de los puestos de Técnico/a de Servicios Sociales, según RPT vigente se concretan en:

LZ Kodea/Código RPT	**Lanpostuaren izena/ Denominación puesto**	**Dot Kopurua/ Nº Dotac**	**Azpitaldea/ Subgrupo**	**PHE/PL**	**Derrigortasun Data/ Fecha Precep**	**DO/CD**	**BO/CESP**
6010/SN	Técnico/a de servicios sociales	1	A2	C1C1	23/07/2020	23	30.180,00
6011/SN	Técnico/a de servicios sociales	1	A2	C1C1	23/07/2020	23	30.180,00
6012/SN	Técnico/a de servicios sociales	1	A2	C1C1	28/09/2023	23	30.180,00

Oinarri hauek osorik ordezten dituzte 2024ko abenduaren 18ko 2024004581 Alkatetzaren Dekretuaren bidez onartutako oinarriak.

Las presentes bases sustituyen en su integridad las bases aprobadas mediante Decreto de Alcaldía 2024004581, de 18 de diciembre de 2024.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea, dagozkion aldizkari ofizialetan iragarkia jarri ondoren.

SEGUNDO: Exponer al público el expediente de su razón, previo anuncio en los Boletines Oficiales pertinentes.

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 16340630666510512717 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

HIRUGARRENA: Dekretu honen berri ematea Udaleko sailei, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

TERCERO: Dar cuenta del presente Decreto a los diferentes Departamentos del Ayuntamiento, para su conocimiento y efectos oportunos.

I. ERANSKINA

LEIOAKO UDALEKO LANGILEEN PLANTILLAN HUTSIK DAUDEN GIZARTE-ZERBITZUETAKO HIRU (3) TEKNIKARI PLAZA LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK.

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Gizarte Zerbitzuetako hiru (3) teknikari lanpostu betetzea, karrerako funtzionario gisa, oposizio-lehiaketa irekiaren sistemaren bidez, Gizarte Zerbitzuen Sailean. Udal honetako funtzionarioen plantillan hutsik daude, eta Leioako Udalaren 2021eko eta 2025eko Enplegu Publikoaren Eskaintzari eta 2025-2026ko Urte Anitzeko Planari dagozkie.

Lanpostuak Lanbide Sailkapeneko A Taldean sartuta daude, A2 Azpitaldean, Administrazio Berezian, azpieskala teknikoan, klase ertainean, eta hiru lanpostu dituzte atxikita: Gizarte Zerbitzuetako teknikaria, Gizarte Zerbitzuen Saila, indarrean dagoen LPZko 6010/SN, 6011/SN eta 6012/SN kodeak, Titulazio espezifikoa: Gizarte Laneko Graduko unibertsitate-titulazioa, Gizarte Laneko Diplomatura edo baliokidea, zeinak 30.180,00 euroko Berariazko Osagarri Osoa (tarte orokorra eta dedikazio bereziko tartea) esleituta duen. Lanpostuek C1C1 hizkuntza-eskakizuna dute esleituta, eta derrigortasun-data igarota dute.

Deitutako plazen kopurua handitu ahal izango da, deialdiaren ondoren onartutako enplegu publikoaren eskaintzetan sartutako lanpostu hutsen arabera, eta deialdi honetan sartu ahal izango dira alkate-udalburuaren ebazpen baten bidez. Zabaltze hori, hala badagokio, oposizio-fasea gainditu dutenen zerrenda argitaratzeko izapidea baino lehen egin beharko da.

Hautaketa-sistemaren osagarri, praktikaldia ere egingo da, hautaketa-prozesuaren beste fase bat bezala.

Bigarrena. – Eginkizunak

Bete beharreko eginkizunak Udalaren eginkizunen eskuliburuan araututako lanbide-kategoriari dagozkionak izango dira.

Hirugarrena.- Araudi aplikagarria

Lanpostua jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdiari araudi hau aplikatuko zaio:

- Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzkoa.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituena.
- Osagarri gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartutako Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura langileak sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzeko eta lanbide-sustapenerako Erregelamendu Orokorra.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.

- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- Oinarri arautzaile hauek.

Laugarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak eta parte hartzeko baldintzak

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen zirkulazio askea aplikatzekoa den beste estatu batekoa, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunean definituta dagoen moduan.
- Parte hartu ahal izango dute, halaber, Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea duten pertsonen ezkontideek, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta haien ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta, era berean, bi ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, haien kontura bizi badira (5/2015 LED, 57. artikulua).
- Aurretiazko eskaera egitea.
- Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea, eta deitutako lanpostuari dagozkion eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko gaitasun psikofisikoa izatea eta gaitasun hori bateragarria izatea. Udaleko Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute gaitasun hori, alde batera utzita zer egokitzapen egin behar diren lanpostuan, lan-arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera, pertsonak lanetik eratorritako arriskuetatik babestea bermatzeko.
- Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.
- Diziplinazko espediente bidez edozein administrazio publikotatik edo autonomia-erkidegoetako organismo konstituzional edo estatutariotatik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaikuntza absolutua edo berezia ez izatea, funtzionarioen kidego edo eskaletara sartzeko.

- Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.
- Gizarte Laneko Graduko unibertsitate-titulua, Gizarte Laneko Diplomatura edo baliokidea izatea, edo eskuratzeko moduan egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean. Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiek dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria dutela egiaztatu beharko dute.
- Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea, hargatik eragotzi gabe jada kargu publiko bat edo jarduera pribatu bateraezina betetzen dutenentzat aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubidea baliatzea.
- Hautaketa-prozesuaren barruan C1C1 hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea. Eskakizun hori euskara-azterketaren behin betiko kalifikazioa argitaratzen den egunean bete beharko da.
- Dagokion tasa ordaintzea edo, hala badagokio, ordaintzetik salbuetsita dagoela justifikatzea, inskripzioa egin zen unean indarrean zegoen ordenantzaren arabera.

Deialdian parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte. Era berean, horiek guztiak eduki beharko dira hautaketa-prozedurak irauten duen bitartean, izendapenaren unera arte, d) letran, gaitasun funtzionalari buruzkoan, aipatutakoa izan ezik, hori lan-kontratudun langile izendatu aurre-aurretik egiaztatu beharko baitute udaleko zerbitzu medikoek. Aurrekoa gorabehera, prozeduraren edozein unetan epaimahaiak izangairen batek deialdian eskatutako baldintzak betetzen ez dituela jakiten badu, baztertu egingo da, interesdunari entzun ondoren, eta egun berean jakinaraziko zaio hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari. Hautaketa-prozesuan parte hartzea borondatezkoa da. Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta helbururako erabiltzeko berariazko baimena ematen dute, kontrakoa adierazi ezean.

Bosgarrena. – Adostasuna eta publizitatea

Oinarri hauen xede den hautaketa-prozesu honetan parte hartzeak esan nahi du izangaiak eskabidean jasotako eta izen-abizenei, NANari eta prestakuntza-mailari buruzko datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen duela, datu horiek buletinetan, iragarki-tauletan, webgunean eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bitartekotan argitaratzeko, bai eta IVAPek edo erakunde eskudunak euskararen edo beste edozein hizkuntzaren ezagutza-mailaren egiaztapena egiaztatzeko ere, eta, oro har, epaimahaiak berak hautaketa-prozesuari dagozkion probak behar bezala prestatzeko eta gauzatzeko behar diren datuak egiaztatzeko.

Oinarri hauen xede diren hautaketa-prozesuak publizitate-printzipioak arautzen ditu, eta, beraz, eskabidea ez da onartuko izangaiak ez badu onartzen bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuekin lagatzea.

Oinarri hauetan aipatzen diren hautaketa-prozesuen ondorioz lan-poltsak eratzeari buruzko hemeretzigarren oinarrian aurreikusitako ondorioetarako, izangaiek prozesu horietan parte hartzeko eskabidean adierazi beharko dituzte honako hauei buruzko datuak: izen-abizenak, NANa, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Izangai horiek enplegu-

eskaintzak egin ahal izango dizkiete, legez aurreikusitako baldintzetan, eta, berariaz aurka egiten ez badute, horretarako baimena ematen dutela ulertuko da.

Seigarrena. – Eskabideak

Dagokion hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak, zeinetan izangaiek adierazi beharko baitute deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, 20 egun naturaleko epean aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, horretarako gaitutako aplikazio informatikoaren bidez, eta, era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean horretarako gaitutako erregistroetan aurkeztu ahal izango dira, horretarako normalizatutako inprimakietan (I. eranskina).

Ikusten diren egitezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Izangaiek eskabidean emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ez da erabiliko. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua bat etorriko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legean ezarritakoarekin.

Ofizioz, betekizun/informazio hauek egiaztatu eta/edo espedientean sartuko dira, salbu eta interesdunak berariaz kontrakoa adierazten badu:

- Nortasun-datuak egiaztatzea
- Unibertsitate-titulu ofizialak
- Hizkuntza-eskakizunik altuena (euskara).

Aurkeztu beharreko dokumentuak Leioako Udalaren esku daudenean, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea, baldin eta noiz eta zein bulegotan aurkeztu ziren adierazten bada, eta dagokion prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Leioako Udalak, eskuragarri dauden datu-bitartekaritzako sistemen bidez, behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruz, bai eta dirulaguntza honen administrazio-izapideak egiteko behar den beste edozein datu ere, horretarako inprimakietan adierazitakoaren arabera. Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria Pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da. Artikulu horretan aitortzen da herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak eta aplikatu beharreko gainerako legeria ez aurkezteko. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesdunak [edo haren ordezkariak] ez badu datu horiek erabiltzearen aurka egiten; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Leioako Udalak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Era berean, administrazioek lankidetzan aritzeko betebeharra dute, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duen bezala, datuen trukearen inguruan, eta herritarren esku dauden datuak eman beharko dituzte.

Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Deialdian parte hartzeko eskatzen den titulua, datu-bitartekaritzako plataformaren bidez lortu ezin bada (unibertsitatez kanpoko titulu ofizial batzuk).
- Eskatzen den hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duten euskararen ziurtagiri edo tituluak, hizkuntza-eskakizuna Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan erregistratuta ez badago, euskara-ariketa egitetik salbuetsita geratzeko.
- Dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztagiria edo, hala badagokio, ordaintzetik salbuetsita egotearen justifikazioa, inskripzioaren unean indarrean dagoen ordenantzaren arabera.
- Izangaiek aplikazio informatikoan erantsiko dituzte betekizunak eta merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuak, edo, hala badagokio, udal-webgunean emango den ereduko adierazpen batean erantsiko dituzte, salbu eta datuak edo informazio elkarreragingarria badira, aurrez adierazitakoaren arabera; kasu horretan, berariaz adieraziko dute hori.

Izangaiek eskabidean adierazi beharko dute zein hizkuntzatan (euskaraz edo gaztelaniaz) egin nahi dituzten probak. Atal hau adierazten ez bada, probak gaztelaniaz egingo direla ulertuko da, besterik adierazi ezean.
Era berean, euskararen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetara aurkeztu nahi duten izangaiek eskabidean adierazi beharko dute hori, eta ez da onartuko proba horietan parte hartzea, baldin eta eskabideak aurkezteko epean halakorik adierazi ez badute.
Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta justifikatutako merezimenduak baino ezin izango dira baloratu, ezta epe horren barruan alegatu eta ondoren egiaztatzen direnak ere. Merezimenduak baloratzeko, epea amaitu arte lortutakoak bakarrik hartuko dira kontuan. Epea deialdia BOEn argitaratzen den eguna izango da, eta egun hori izango da, halaber, eskatutako baldintzak betetzeko erreferentzia-data.
Izangaiek eskabidean adierazi beharko dute zein hizkuntzatan (euskaraz edo gaztelaniaz) egin nahi dituzten probak. Atal hau adierazten ez bada, probak gaztelaniaz egingo direla ulertuko da, besterik adierazi ezean.
Era berean, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetara aurkeztu nahi duten izangaiek eskabidean adierazi beharko dute hori, eta ez da onartuko proba horietan parte hartzea, baldin eta eskabideak aurkezteko epean halakorik adierazi ez badute.

<u>Zazpigarrena.- Tasak</u>

Azterketa-eskubideengatiko tasa eskabideak aurkezteko epean ordaindu beharko du hautaketa-prozesuan parte hartu nahi duen pertsona bakoitzak, eta zerbitzu publikoak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantzaren 06.24 epigrafean (Azterketa-eskubideak) ezarritakoaren arabera, ez da itzuliko interesdunari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik.
Beraz, baldintzak ez betetzeagatik, prozesua ez gainditzeagatik edo deialdian eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik hautaketa-prozesutik baztertzeak ez du ekarriko azterketa-eskubideak itzultzea. Azterketa-eskubideen zenbatekoa Leioako Udalaren zerbitzu publikoak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen indarreko Ordenantza Fiskalean aurreikusitako baldintzetan ordainduko da. Ezarritako tasa ezarritako epean ordaintzen ez bada, izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

<u>Zortzigarrena. – Izangaiak onartzea</u>

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, alkateak ebazpena emango du onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzeko. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta ediktu-oholean eta erakundearen webgunean jarriko da. Baztertutako izangai bakoitzari dagokionez, behin-behineko zerrendan adieraziko dira kanporatzea eragin duten arrazoiak, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egiteko eta eskabidean dauden akatsak zuzentzeko, eta ohartaraziko da, hala egin ezean, eskabidea izapide gehiagorik gabe artxibatuko dela.

Epe hori igarota, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da automatikoki, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Halakorik badago, behin betiko zerrenda onartzen duen beste ebazpen batean baietsi edo ezetsiko dira. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabete bateko epean.

Probak egiteko egunean aurkeztutako errekurtsoa ebatzi ez bada, eragindako pertsonek probak egin ahal izango dituzte, baina proba horiek ez dute baliorik izango aipatutako errekurtsoa ezesten bada.

<u>Bederatzigarrena.- Epaimahai kalifikatzailea</u>

1.- Oposizio-lehiaketako probak eta merezimenduak zehaztu, garatu eta ebaluatzeko, eta parte-hartzaileak hautatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikuluan (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua), ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 4. artikuluan, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. eta 189. artikuluetan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 21.1 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua).

Epaimahaiburuak, hiru epaimahaikidek eta idazkari batek osatuko dute epaimahaia. Epaimahaikideetako bat IVAPek izendatuko du, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.11 artikulua. Era berean, IVAPek proposatuta izendatutako pertsona bat epaimahai kalifikatzaileko kide izango da deialdian eskatutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetan, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 189. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izenen zerrenda, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrendarekin batera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2.- Epaimahai Kalifikatzailearen jarduna kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen duten arauen araberakoa izango da.

Euskararen jakite-mailaren probari dagokion epaimahaiko kideak ondorio horretarako bakarrik izango du balioa, berariaz besterik xedatzen ez bada.

Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, ez baitu botorik izango. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa gertatuz gero, mahaiburu diharduenaren botoak ebatziko du.

Epaimahai kalifikatzaileko kideei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan jasotako abstentzio- eta errekusazio-arrazoiak aplikatuko zaizkie. Epaimahaikideek dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte zerbitzuengatik, bertaratzeak barne, horri buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

3.- Hautaketa-sistema osatzen duten proben garapena eta ebaluazioa epaimahai kalifikatzaileari dagokio, eta autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren objektibotasunaren erantzule izango da eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du.

4.- Epaimahai Kalifikatzaileak bere lanetan aholkulariak sartzea xedatu ahal izango du hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako, eta aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan jardutera mugatuko dira. Aholkulari horien jarduna ere objektibotasun-, inpartzialtasun- eta konfidentzialtasun-printzipioen mende egongo da.

5.- Epaimahai kalifikatzaileak behar diren neurriak hartu ahal izango ditu hautaketa-sistema garatzeko oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian, eta sistemaren interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren arazoak ebatzi ahal izango ditu, bai eta bere eginkizunak betetzeko sortzen direnak ere. Era berean, Epaimahai Kalifikatzaileak arau hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak argituko ditu, baita aurreikusi gabeko kasuetan egin beharrekoa ere.

6.- Epaimahai kalifikatzaileak ezingo du hautatu deitutako plazak baino izangai gehiago, hargatik eragotzi gabe Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 78.7 artikuluan ezarritakoa.

7.- Epaimahai Kalifikatzaileak probak edo ariketak noiz egingo diren eta zein emaitza izan duten jakinarazteko hartzen dituen erabakiak erakundearen iragarki-taulan eta web orrian argitaratuko dira.

8.- Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak Leioako Udaleko Giza Baliabideen Sailean izango du helbidea: Elexalde 1, 48940 Leioa.

<u>Hamargarrena. – Oposizioa (gehienez 75 puntu)</u>

Oposizioan, proba hauek egin beharko dira, hurrenez hurren:

1.- Lehenengo proba (gehienez 20 puntu)

Derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da, eta ezagutzei buruzko proba izango da. Test motako galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio.

Edukiak zehazteko, oinarri hauen I. eranskinean jasotako gai-zerrendari jarraituko zaio.

Epaimahaiak erabakiko du zenbat galdera izango diren eta zenbat iraungo duen probak. Proba egin aurretik jakinaraziko da.

Test motako galdetegiko galdera bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta horietako bat bakarrik izango da zuzena.

Proba honetan, erantzun oker bakoitzak erantzun zuzen bakoitzari esleitutako balioaren % 0,333ko zigorra izango du. Erantzun gabeko galderak ez dira zigortuko.

Proba hori 0 eta 20 puntu artean baloratuko da, eta gutxienez 10 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.

Hautaketa-sistema behar bezala antolatze aldera, epaimahai kalifikatzaileak, eskatzen den gutxienekoa eta proba honetan erakutsitako ezagutza-maila kontuan hartuta, eta izangaiak nor diren jakin aurretik, proba gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa ezartzeko puntuazio-atalasea erabaki ahal izango du, modu arrazoituan, eta akordio horren berri emango du.

2.- Bigarren proba (gehienez 50 puntu)

Derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da, eta deialdi honetako 13. gaitik 60. gaira (gai-zerrenda espezifikoa) bildutakoari buruzko kasu praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira proba honetan (I. eranskina). Epaimahaiak erabakiko du proba egin aurretik zenbat galdera egingo diren, zenbat iraungo duen probak eta abar.

Ariketa hau gehienez 50 punturekin kalifikatuko da, eta gainditzeko gutxienez 25 puntu lortu beharko dira.

Hautaketa-sistema behar bezala antolatze aldera, epaimahai kalifikatzaileak, eska daitekeen gutxienekoa eta proba honetan erakutsitako ezagutza-maila kontuan hartuta, izangaiak nor diren jakin aurretik, modu arrazoituan erabaki ahal izango du proba gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa ezartzeko puntuazio-atalasea, eta erabaki hori argitara emango du.

Ariketa honen idatzizko proba egiteko, epaimahaiak ezarritako agiriak erabili ahal izango dituzte izangaiek. Epaimahaiak erabili ahal izango duen dokumentazioaren xehetasuna ariketa egin den datarekin batera argitaratuko da. Suposizio praktikoak egiteko, gailu elektroniko mota guztiak baztertuko dira, kalkulagailua izan ezik, hala badagokio.

Bigarren ariketaren balorazioan, honako hauek hartuko dira kontuan: erantzunen zehaztasuna, laburtzeko eta aztertzeko gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna, eta horiek azaltzeko argitasuna eta zuzentasuna. Epaimahaiak informazio-ohar bat argitaratuko du azterketaren aurretik, proba baloratzeko kontuan hartuko diren irizpideei buruzkoa.

3.- Hirugarren proba. - Hizkuntza eskakizuna egiaztatzea.

Eskainitako lanpostuetarako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna agiri bidez egiaztatu ahal izango da euskara-azterketaren behin betiko kalifikazioa argitaratzen den egunean.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko; horretarako, parte-hartzaileak berariaz baimena emango dio Leioako Udalari erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan sartuta ez dagoen beste edozein titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliokidetuta, euskararen titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotutako salbuespenak baino ez dira onartuko.

Eskainitako plazetan ezarritako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko, proba bat edo batzuk egingo dira, nahitaezkoa eta baztertzailea, Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1C1 mailari dagokion zailtasun-mailarekin.

IVAPek proposatuta izendatutako pertsona bat epaimahai kalifikatzaileko kide izango da deialdian eskatzen diren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetan.

Proba hori edo horiek egiteko eguna, ordua eta lekua Epaimahai Kalifikatzailearen erabaki bidez jakinaraziko dira, bederatzigarren oinarrian aurreikusitako moduan.

Proba hori egiten dutenei Gai edo Ez Gai kalifikazioa emango zaie.

Deitutako lanposturako hizkuntza-eskakizuna igarota dagoenez, beharrezkoa izango da hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetan gai izatea.

4.- Proba bakarra. - Gaitasunak gauzatzea (gehienez 5 puntu)

Proba hau borondatezkoa da, ez da baztertzailea, eta izangaien gaitasunak ebaluatzeko da. Proba honen balorazioa 0 eta 5 puntu artekoa izango da. Gaitasunak (jarrerak eta/edo gaitasunak) neurtzeko proba bat edo gehiago egin beharko dira, izangaiak lanpostura egokitzen diren baloratzeko. Gaitasun intelektualak, gaitasunezkoak, jarrerazkoak edo nortasunekoak neurtu ahal izango dira.

Epaimahaiak egokitzat jotzen dituen tresna motak erabili ahal izango dira (testa, talde-dinamikak, rol-probak, etab.).

Ebaluatuko diren gaitasunak Epaimahaiak zehaztu eta argitaratuko ditu informazio-oharrean, non ariketa hori noiz egin den zehaztuko baitu.

<u>Hamaikagarrena. – Oposizio-proben garapena</u>

1.- Hasiera.

Oposizio-faseko ariketak ezingo dira hasi deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gutxienez hilabete igaro arte.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzean, ariketa horiek zuzendu ondoren, eta izangaien identitatea azaldu eta bakoitzaren kalifikazioa zehaztu aurretik, epaimahaiak behar den ezagutza-maila edo -atalasea ezarri ahal izango du, ariketa gainditzeko behar diren gutxieneko puntuak lortzeko.

Epaimahai kalifikatzaileak oposizio-faseko probak oinarrietan aurreikusitakoaz bestelako hurrenkeran egitea xedatu ahal izango du.

Desgaitasunaren ondorioz hautaprobak egiteko zailtasun bereziak dituzten pertsonek probak berdintasun-baldintzetan egiteko behar dituzten egokitzapenak eta denbora- eta baliabide-doikuntzak eskatu ahal izango dituzte. Horretarako, interesdunek eskabide zehatza egin beharko dute eskabide-ereduan, desgaitasun-maila kalifikatzeko organo teknikoak emandako irizpen tekniko fakultatiboarekin batera, eskatutako egokitzapenen beharra egiaztatzeko.

Bitartekoen, denboraren eta arrazoizko doikuntzen egokitzapenak bat etorriko dira PJC/804/2025 Aginduan aurreikusitakoarekin (PJC/804/2025 Agindua, uztailaren 23koa, Desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuetan bitartekoak eta denborak egokitzeko eta beste arrazoizko doikuntza batzuk egiteko irizpide orokorrak ezartzen dituena).

Nolanahi ere, egiaztatzen den desgaitasun-mailak bateragarria izan beharko du eskainitako lanpostuari dagozkion zereginak eta funtzioak betetzearekin.

Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek egokitzapen materialak eskatu ahal izango dituzte, Udaleko Giza Baliabideen arloari horren berri emanez, probak egin baino hamar egun baliodun lehenago gutxienez.

Behar bezala egiaztatutako haurdunaldia edo erditzea dela-eta izangairen batek ezin badu hautaketa-prozesua osatu edo ezin badu ariketa bat egin, izangai horren egoera prozesua amaitzearen eta atzeratuta geratu diren faseak gainditzearen baldintzapean geratuko da. Fase horiek ezin izango dira atzeratu, eta, beraz, ezin izango da kaltetu gainerako izangaiek prozesuaren ebazpena arrazoizko denboren arabera emateko duten eskubidea. Epaimahaiak baloratu beharko du hori, eta, nolanahi ere, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu baino lehen egingo dira.

Arestian ezarritakoaren salbuespen gisa, eta hautaprobetan aukera- eta tratu-berdintasuna bermatze aldera, Epaimahai Kalifikatzaileak probak egiteko datak eta/edo lekuak egokitu ahal izango ditu, haurdunaldia dela-eta, erditzean edo erditu aurreko edo ondorengo aldian dauden emakumeen kasuan, betiere egoera horiek Epaimahai Kalifikatzaileari jakinarazten bazaizkio proba edo ariketa egin aurretik, eta ziurtagiri medikoaren bidez egiaztatzen bada. Nolanahi ere, horrela egokitutako probak hautatutako pertsonen zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira.
Irakurriaren ulermenari eragiten dioten irakurketa- eta idazketa-nahasmenduengatik egokitzapenak behar dituzten pertsonek egokitzapen-eskaera egin beharko dute. Egokitzapenetan, Arial 12 koadernoak erabiliko dira (lerroartea 1,5), eta proba osorik edo zati batean ozenki irakurtzeko eskatu ahal izango da. Aldez aurretik argitaratuko dira probaren jarraibideak eta azterketa-orri eredua, baldin eta test erakoa bada.

2.- Argitalpena.

Oposizio-faseko lehen ariketa non, noiz eta zer ordutan hasiko den Udaleko iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratuko da, gutxienez zazpi egun baliodun lehenago. Oposizioko gainerako ariketen iragarkiak udaletxeko iragarki-oholean eta udalaren web orrian argitaratuko ditu epaimahaiak. Iragarki horiek gutxienez hurrengo ariketa egin baino 48 ordu lehenago argitaratu beharko dira.

3.- Deialdia.

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako, eta deitzen zaienean ariketetara aurkezten ez badira, automatikoki galduko dute ariketa berean eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea. Ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak libreki aintzat hartutako kasuetan izan ezik.
Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko ariketetako edozein egiten hasi ondoren egiten duten izangaiei. Probak egiten ez badira edo berandu egiten badira, uko egin zaiela ulertuko da.

4.- Identifikazioa.

Epaimahai kalifikatzaileak une oro eskatu ahal izango die izangaiei behar bezala identifika daitezen, eta, horretarako, oposizioko ariketa bakoitzean NANa edo beste edozein agiri ofizial aurkeztu beharko dute, epaimahaiaren iritziz izangaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzen duena (pasaportea, gidabaimena, atzerritarraren nortasun-zenbakia, etab.).

5.- Ariketen arteko tartea.

Oposizioko ariketa bakoitza amaitu eta hurrengoa hasten denetik gutxienez 72 ordu eta gehienez 45 egun baliodun igaro beharko dira. Abuztua ez da bigarren epean zenbatuko, baliogabea izango baita ondorio hauetarako. Hala ere, epaimahaiak, egoki irizten badio, ariketa bat baino gehiago aldi berean saio berean egitea erabaki dezake, bai eta izangaiek egoki iritzitako ariketak irakurtzea ere. Irakurketa hori publikoa izango da, eta behar diren egun eta orduetan egingo da; kasu horretan, 48 ordu lehenago jakinarazi beharko da.

6. Erreklamazioak.

Kalifikazioak argitaratu eta hiru egun balioduneko epea emango da emandako kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

<u>Hamabigarrena. – Oposizio-faseko kalifikazioa</u>

Oposizio-faseko kalifikazioa proba bakoitzari emandako puntuen batura izango da.

Oposizio-faseko hirugarren zatia Gai edo Ez Gai gisa kalifikatuko da. Ez-gai kalifikatzeak edo ezarritako epean hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeak hautagaia hautaketa-prozesutik kentzea ekarriko du.
Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen batura izango da.

Hamahirugarrena.- Lehiaketa (gehienez 25 puntu)

1.- Lehiaketa-faseko kalifikazioa oposizio-fasea gainditu duten pertsonei soilik aplikatuko zaie, eta gehienez ere 25 puntu lortu ahal izango dira.
2. – Lehiaketa-fasea fase hori gainditu duten izangaiak sartuko diren oposizio-fasea amaitu ondoren hasiko da. Eskabideak aurkezteko epean alegatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eta behar bezala egiaztatu beharko dira 10 egun balioduneko epean, oposizio-faseko behin betiko kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Merezimenduak oinarri hauetan deskribatutakoaren arabera baloratuko dira, eta ezin izango da bestelako merezimendurik baloratu. Ez da baloratuko inskripzio-eskaeran alegatu ez den merezimendurik, nahiz eta espedientean pertsonala izan edo dokumentazio hori udalaren esku egon. Deialdia BOEn argitaratu den egunera artekoak eta eskabidearekin batera aurkeztutako merezimenduen zerrendan alegatu direnak baino ez dira baloratuko.
3.- Lehiaketa-fasea ez da baztertzailea izango, eta fase horretan lortutako puntuazioak ez dira kontuan hartuko oposizio-faseko probak gainditzeko.
4.- Lehiaketa-fasean honako hauek baloratuko dira:

4.1- Esperientzia (gehienez 10 puntu)

Administrazio Bereziko eskalako A taldeko A2 azpitaldeko lanpostuetan gizarte-langilearen lanpostuetan egindako zerbitzuengatik 10 puntu emango dira gehienez, 2 puntu zerbitzuan egindako urte oso bakoitzeko, eta hilabete bati dagokion frakzioa 0,167 punturekin baloratuko da. Ez dira baloratuko hilabetetik beherako zatikiak.
Apartatu honetan ez da baloratuko behin-behineko langileen lanpostuetan zerbitzuak ematea, EEPLren 30. artikulua, ez bekarik, ez prestakuntza-praktikarik.
Administrazio Publikoan emandako zerbitzuak zerbitzuak eman diren Administrazioaren ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira, eta kontratuaren edo izendapenaren iraupena, betetako lanpostua eta lanpostu hori eragin duten lanpostuen sailkapena zehaztu beharko dira.
Administrazio publikoan emandako zerbitzuen ondorioetarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez uztartzea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora; eta emakume enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak erabili dituzten denbora.
Ez dira baloratuko lanbide-esperientziarekin lotutako merezimenduak, baldin eta honako hauek berariaz adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta lanbide-kategoria.
- Kontratazio- edo izendapen-aldien hasiera- eta amaiera-data.
- Lanpostuaren eginkizun nagusiak, kategoria behar bezain deskribatzailea ez bada.

4.2. Tituluak eta prestakuntza (gehienez 11 puntu).

a.- Graduondoko, masterreko edo doktoregoko diplomak (gehienez 6 puntu).

Unibertsitate edo doktorego batek emandako unibertsitateko graduondoko edo masterreko ikastaroak egitea baloratuko da, deialdiaren xede den lanpostuan bete beharreko eginkizunekin zerikusia duten gaietan, gehienez 6 puntu, honela:

- Graduondoko edo espezialitateko diplomak: 2 puntu titulu bakoitzeko.
- Master ofizialak edo propioak: 4 puntu titulu bakoitzeko.
- Doktoregoa: 5 puntu titulu bakoitzeko.

b.- Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak (gehienez 5 puntu).

Deialdiaren xede den lanpostuan egin beharreko eginkizunekin zerikusia duten gaiei buruzko prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak. Bertaratze-diplomaren eta/edo -ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira eta/edo, hala badagokio, aprobetxamendu-ziurtagiriaren bidez. Ikastaro horietan, ikastaroen iraupen-orduak adierazi beharko dira nahitaez. Honela baloratuko da: 0,01 puntu jasotako prestakuntza-ordu bakoitzeko, eta, guztira, gehienez ere 5 puntu lortu ahal izango dira.

Administrazio Publikoko Eskolek (IVAP, INAP, IEAP) eta prestakuntza-zentro ofizial publiko zein pribatuek antolatutako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak baloratuko dira, betiere bertaratze-ziurtagiria ematen badute. Ondorio horietarako, zentro ofizialtzat hartuko dira administrazio publikoak, unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren mendeko ikastetxeak edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-departamentuak eta ministerioak, sailak, merkataritza-ganberak edo elkargo ofizialak, lanbide-elkarteak, ikasketa-zentro pribatuak.

Ez dira baloratuko fakultateko edo eskolako ikasketa-plan ofizialetako irakasgaiak.

4.3. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza espezifikoa (gehienez 2,5 puntu).

Udalak konpromiso irmoa du emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioarekin langileak hautatzeko, sustatzeko eta kudeatzeko prozesu guztietan, eta uste du gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko prestakuntza zeharkako prestakuntza dela, eta lanpostuarekin eta haren eginkizunekin lotutako prestakuntza espezifikoa bezala baloratuko dela.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa baloratuko da: 2,5 puntu emango dira gehienez, 0,016 puntu ordu bakoitzeko. Prestakuntza-orduak diploma eta/edo bertaratze-ziurtagiri bidez edo, hala badagokio, aprobetxamendu-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira, eta horietan, nahitaez, orduen iraupenaren eskola-orduak adierazi beharko dira.

4.4. Hizkuntzak (gehienez 1,5 puntu)

Ingelesa edo frantsesa jakitea baloratuko da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan, gehienez 1,5 punturekin, baremo honen arabera:

- C1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B2 maila: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko.
- B1 maila: 0,50 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Dagokion Hizkuntza Eskola Ofizialak emandako ziurtagiriaren edo ziurtagiri ofizial baliokidearen bidez egiaztatuko dira.

Hamalaugarrena.- Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

1.- Emaitzak argitaratzea.

Oposizio-aldiko eta lehiaketa-aldiko ariketa bakoitzeko puntuazioak udaletxeko iragarki-taulan eta udalaren web-orrian argitaratuko dira, dagokion iragarkiaren bidez.

2.- Merezimenduen balorazioa.

Oposizio-fasea gainditu duten pertsonen lehiaketako merezimenduen balorazioa aurreko oinarrietan ezarritako baremoen arabera emandako puntuen batura izango da.

Merezimenduen balorazioa behin-behinean argitaratu ondoren, hiru egun balioduneko epea emango da emandako kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Hamabosgarrena.- Oposizio-lehiaketa gainditu dutenen behin-behineko eta behin betiko zerrenda

1.- Oposizio-lehiaketaren guztizko puntuazioa bi faseetan lortutako puntuazioen batura izango da, eta izangaien lehentasun-ordena zehaztuko du. Sailkapen-ordenako puntuazio-berdinketak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean jasotako irizpidearen arabera ebatziko dira (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen lege hori). Berdinketak jarraitzen badu, Leioako Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde ebatziko da; bigarrenik, oposizioko bigarren proban puntuaziorik handiena lortu duenaren alde; eta, azkenik, adinez zaharrena denaren alde.

Epaimahai kalifikatzaileak gainditu dutenen behin-behineko zerrenda onartu eta argitaratuko du, kalifikazioen arabera, puntuazio-ordenaren arabera.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 10 egun balioduneko epean, interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte haien aurka, eta behin betiko zerrenda onartu baino lehen ebatziko dira.

3.- Epe hori igarota, epaimahaiak kalifikazioen araberako behin betiko zerrenda onartuko du, iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratuko du, eta alkatetzari helaraziko dio, puntuazio-hurrenkeraren arabera.

